

Epaimahaia osatu dugunon izenean nator gaur zuen aurrera. Guri zuek egindako lanak epaitzea eta sarirako kopuru jakin bat aukeratzea dagokigu. Horretan ahalegindu gara gure borondaterik onenarekin eta gure ahalmena horretara jarrita.

Aurreko urteetako moduan, hainbat idazlan aurkeztu dira lehiara. Estilo askotakoak. Batzuk soilak, argumentua garatzeari helduta; beste batzuk irudi, deskribapen eta berba-joko gehiagorekin jantziak. Batzuk fikzio eta irudimen handikoak; beste batzuk eguneroko bizimoduko gorabehereri lotuagoak.

Gurera etorrita, leihaketa oinarrietan hiru sari emango direla jarrita dago, hala ere, ezin ekarri izan dugu gure aukera hirura, eta laugarren bat ere sartu dugu aipamen gisa.

Hona hemen epaimahaikoen iritzia lan saritu bakoitzeko:

1. saria: ZORITXARREKO SEKRETUA.

Gai gogorra erabili arren, idazlea idazkera liriko eta gustu handiz, emeki-emeki, doa eraikitzen istorioa, bidean egindako aurkikuntza bakoitzari etekina ateraz, zentzumenak adi, giroak egoki landuz eta guztia esku trebez harilduz.

2. saria: ATZEAK ERAKUSTEN DU AURREA NOLA DANTZATU.

Gai gogorra hau ere, gaztetxo baten eskarmentutik ondo josia, pausoz pauso emozioz irabazten doan narrazio laburra amaiera indartsu batez primeran itxia.

3. saria: KOADERNO TXIKIA

Eguneroko batean gorderiko kontuak txukun, aberats eta garbi idatzita. Egunerokoa izateak aitzakia ematen dio gai bera behin eta berriro erabiltzeko. Hala eta guzti ere oso ondo idatzita dago.

Aipamena: UR, ITSASOAREN SORTZEA.

Istori fantastikoa egiteko ahalegin zintzoa ikusi diogu idazlan honi. Oso planteamendu originala gai aldetik: ur-eskasia vs. ur gehiegia. Ekintzetan oinarritutako

argumentuetatik harago doa. Amaiera zabalik geratzen da, iradokitzailea da.

## OLERKIA

### 1. saria: NIRE HERRIA

Ezaugarri ezagun eta topikoei zukua ateratzen die, koloreak eta bakoitzaren sinbologia erabilia. Harago joanez, Euskal Herriarekiko maitasuna deskribatzen du. Poesia egiteko ahalegina nabari da.

### 2. saria: GAU BELTZA

Poesia egiteko ahalegin polita. Metafora bidez, hizkuntzarekin jolastu eta etekina ateraz, gertaera xume baten garapena eta bukaera nabari dira, amaierara hurreratu ahala erritmoa ere arinduz doala. Sinple baina dotore idatzita.

### 3. saria: MAITASUN IZPIAK

Olerki indartsua eta biribila bere laburrean. Hasi eta amaitu berehala egiten da, horregatik uzten du sentazioa gutxi esanda ere dena esanda dagoela. Testu arina baina trinkoa.

### Aipamena: BETIKOA

Egitura jakin bati jarraituz eraikitako bertso ondo idatziak eta elegante josiak.

Zorionak sarituei eta saritugabeei, eta eskerrik asko denoi.

Bilbon, 2010eko martiaren 9an.

Igone Etxebarria